– 2. tartea: Gasteiztik Kanpezura.

Tarte honetan oso tunel luzeak daude (Laminoria, Atauri eta abar), bai eta garrantzi eta konplexutasun tekniko handiko zubi eta biadaktuak ere (Atauri, Santa Kristina, San Saturnino eta abar). Estibalizko adarrak, aldiz, ez zuen obra garrantzitsurik.

3.– Arkitektura: Eraikinak zenbait modutan diseinatu ziren; hain zuzen ere, trenbidearen erakuntza-etapa bakoitzari lotutako ereduaren arabera:

– 1887tik aurrera, eta Compañía del Ferrocarril Anglo-Vasco-Navarro konpainiak kudeatutako 1. etapan:

Solairu bakarreko eta 3 gelako barrakoi xumeak eraiki zituzten Duranan, Erretanan, Urbinan, Legution, Landan eta Leintz-Gatzagan, oinplano angeluzuzeneko bolumen-eredu baten arabera. Altuera bat eta bi isurkiko estalkia zuten, harlangaitzezko hormaz zeuden eraikita, eta zokaloak, markoak edo bilbadurak ziren beren apaingarri bakarrak. Gasteizen, lehenengo tarte horretako geltoki handi bakarra eraiki zen (Gasteiz Hiria), hain zuzen ere Herrandarren kalean: gaur egun jada ez dago, baina eraikin aparta zen, eta enpresaren administrazio-bulegoak ere hantxe zeuden. 1915ean, beste adar bat inauguratu zen: hirigunean barrena zihoan, eta aipatutako geltokia eta gaur egun desagertuta dagoen Gasteiz Iparraldea izeneko geltokia lotzen zituen. Hain zuzen ere, hortik abiatzen zen Gasteiz-Lizarra linea: egiaz, markesinadun geraleku xume bat zen, Dato kaleko Madril-Irun linearen gaur egungo geltokiaren parean kokatutakoa.

– 1914an, 2. faseari ekin zitzaion, eta Estatuak berriro heldu zien Eskoriatza eta Mekolalde arteko obrei:

Geraleku txiki batzuek gain (Marin, Zarimutz eta Mazmela), Ramón Aguinagak geltoki handiagoak diseinatu zituen: «old english» inspirazio argiko eraikin dotoreak ziren, oinplano angeluzuzenekoak, 2 solairukoak eta teilatupedunak. Gainera, markesina metalikoa zuten nasa nagusian (gaur egun, gehienak desagertuta daude). Eredu horren ezaugarriak honako hauek ziren: zeramikazko teila lauz egindako estalkiak, malda handikoak eta teilatu-hegal nabarmenekoak; triangulu-formako piñoiak; harlanduzko zokalodun harlangaitz-horma ilaratuak; arotzeriak; balaustradak eta teilatu-hegalak, pintatutako zurez egindakoak eta konposiziorako zenbait baliabide erabiltzen zituztenak, esate baterako, arku beheratuak, idi-begiak eta ageriko adreiluak ateburuetan, inpostetan eta bilbadura faltsuetan.

– 1920tik aurrera, 3. fasean, Gasteiztik Lizarrarako tartea egin zen:

Eragin ingeleseko estilo eklektikoak Alejandro de la Peña Mendizabal ingeniariak diseinatutako geltokietan jo zuen goia: Olarizu, Otazu, Aberasturi, Andollu, Ereñxun, Gauna, Uribarri-Jauregi,

Laminoria, Maeztu, Atauri, Antoñana eta Kanpezukoetan, hain zuzen ere. Geltoki handiak ziren, herri horiekin alderatuta. Denek zuten merkantziatarako nasa partzialki estalita, Atauri, Laminoria, Uribarri-Jauregi, Andollu, Aberasturi eta Gaunakoez izan ezik. Gaur egun, Kanpezu, Laminoria, Uribarri-Jauregi, Gauna eta Olarizuko geltokiak desagertuta daude. Fase horretan,aldi berean, San Prudentziotik Oñatirako adarrari ekin zitzaion, eta Aguinagaren geltoki-eredua errepikatu zuten hor. Oñatin, alabaina, estilo errenazentistako harlanduzko eraikin aparta eraiki zuten, bertako arkitekturari inspiratuta.

– 1938 aldera, Gasteiztik Mekolalderako tartearen elektrifikazioaren ondorioz:

Explotación de Ferrocarriles del Estado (Estatuko Trenbideen Ustiapena) izeneko organismoak berriro egin zituen Gasteiz eta Leintz-Gatzaga arteko geltokirik zaharrenak, eta bidaiarien zerbitzurako eraikin berriak egin zituen Duranan (gaur egun desagertuta), Erretanan, Legutioko Villarrealen eta Landan. Eraikin horiek bertako estilo arkitektoniko eklektikoan egin zituzten, eragin ingeleseko xehetasunak ere gehituz. Altuera bikoitza zuten, bi isurkiko teilatua, eta teilatu-hegal handiak, jabolioez hornituak, zurezko barne-egiturarekin, harlangaitz-horma ilaratuekin, harlanduzko hormekin beheko solairuko eskantzuetan, eta fabrikako hormekin goiko solairuan, horma-atalez, ageriko adreiluz eta zurezko egitura faltsuz estalita, konposizio-baliabide gisa. Orduan, hasierako instalazioak merkantziatarako nasa gisa eta trenbideetarako eta obretarako biltegi gisa egokitu zituzten.

Mantentze-lanetako instalazioak, berriz, oso sakabanatuta zeuden: Oñatin, Gasteiz Hirian, Olarizun eta Santikurutze Kanpezun zeuden horretarako egoitzak. Hala ere, tailer nagusiak Gasteizen egon ziren beti, eta gainerakoak, gehienetan, garajetarako baino ez ziren erabiltzen, eta horietan ez zen garrantzi handiko lanik egiten: material mugikorra berrikustea, besterik ez.

4.– Elektrifikazio-sistema:

Vasco-Navarro trenbidea korrante zuzeneko 1.500 volteko elikadura-tentsioarekin elektrifikatu zen, bi etapatan:

– 1929an, Gasteiz eta Lizarra artean:

Energia Artabiako Jauzitik zetorren (Urederra ibaiaren gainean, Lizarratik gertu), eta 30.000 voltetan heltzen zen Burbako (Nafarroa) azpiestaziora, korrante alferno trifasikoan. Hortik, linea trifilar bat irteten zen Uribarri-Jauregiko geltokiko Errotaldeko transformazio-azpizentralera, eta, handik, 3.000 volteko linea osagarri bat zihoan Gasteizeraino. Linea horrek geltokietako transformazio-postuak elikatzen zituen, argiztapen-zerbitzuetarako, nasetako txirrinetarako, katigamenduetarako eta argi-seinaleetarako.

Elektrizitate-hornidura bikoizteko asmoz, eta Artabiako Jauziaren gorabeherari aurre egiteko, Antoñanan azpizentral bat eraiki zen, eta hor beste linea batetik hartzen zen energia: hain zuzen ere, Cotijoko Jauzia (Ebro ibaiaren gainean, Logroñotik gertu) eta Beasain (Gipuzkoa) lotzen zituen lineatik.

1955ean, elikadura-sistema aldatu zuten, eta, horretarako, Ormaiztegi-Gasteiz goi-tentsioko linearen eraikuntza aprobetxatu zuten, Uribarri-Jauregiko azpiestaziora zihoan zuzeneko hargune bat instalatzeko.

Elektrifikazio-sistema horretatik Errotalde eta Antoñanako azpiestazioak baino ez dira geratzen, baita tunelen barruko katenariaren euskarrietako batzuk ere.

– 1938an, Gasteiztik Mekolaldera bitarteko zatian, eta Oñatiko adarrean:

Azpiestazioak (gaur egun desagertuta daude) estilo erregionalistako eraikinetan instalatu ziren, Legutioko Villarrealgo geltokiaren eta Arrasateko geltokiaren ondoan. Transformazio-ekipoak Gasteiz-Lizarra tartekoen antzekoak ziren, baina irteerako potentzia 500 Kw-ra handitu zen.

5.– Elementu osagarriak:

Garrantzi txikiagoko eta hainbat motatako ondasunak dira (trenbideetako biltegiak, geraleku txikiak, euste-hormak, drainatzeak, lubakiak, erreken gaineko zubi txikiak, pontoiak, geltokietako nasak, deskarga-lekuak, zamalekuak eta abar), trenbide-sistemaren parte direnak eta sistema hori interpretatzen eta ulertzen laguntzen dutenak.

II.5.– Ondare higigarria.

Vasco-Navarro trenbideak Espainiako bide estuko material mugikorrekotako parkerik zabalenetakoa izan du: alde batetik, hiru trakzio-motetako motorrak izan ditu (lurrun bidezkoak, elektrikoak eta konbustio elektrikoak), eta, bestetik, atoi material handia (ardatz-autoak, bogieak, egurrezkoak, metalikoak eta abar). Horiek guztiak Estatuko eta atzerriko fabrikatzaile ospetsuenetako batzuek egin zituzten: Ashburyk, Siemens Schukertek, Maquinista Terrestre y Marítima enpresak, Carde y Escoriaza enpresak, eta CAFek, besteak beste.

Oraindik mantentzen diren objektuetatik, tipologiarik adierazgarrienak jaso dira Monumentu Multzo honetan:

– 11. zenbakiko lurrun-lokomotorea: Eusko Trenbideak sozietatearen jabetzakoa da. 1991ko udazkenean «kosmetikoki» zaharberitu zen, eta Oñatiko geltokiaren aurreko monumentu gisa kontserbatzen da. Korrosio- eta degradazio-sintoma argiak ditu, baina Udalak zaharberitzeko interesa agertu du.

– 3002 automotor elektrikoa: Eusko Trenbideak sozietatearen jabetzakoa da. Azpeitiko Burdinbidearen Museoak zaharberitu zuen, eta hantxe dago ikusgai 1995etik.

– Z02 areto-kotxea: 1992an eskuratu zen Azpeitiko Burdinbidearen Museorako, eta hantxe dago ikusgai, 1993an zaharberitu zutenetik.

– C bidaiari-kotxea: 1992an eskuratu zen Azpeitiko Burdinbidearen Museorako, eta hantxe dago ikusgai, 1993an zaharberitu zutenetik.

– Bidaiari-kotxea: Eusko Trenbideak sozietatearen jabetzakoa da. 1998an istripu larria izan zuen: errailetik irten zen. Azpeitiko Burdinbidearen Museoan dago, zaharberitzeko funtsen zain.

III. ERANSKINA

BABES-ERREGIMENA

I. KAPITULUA

BABES-ARAUBIDEAREN EZAUGARRIAK

1. artikulua.– Xedea.

Babes-araubide honek osatu egiten du Vasco-Navarro trenbidearen Euskal Autonomia Erkidegoko tartearen, Monumentu Multzoaren kategoriarekin, babes bereziko kultura-ondasun izendatzeko deklarazioa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 16. artikulua betez. Era berean, ondasun horretan onartuta eta debekatuta dauden jarduerak zehazten dira.

2. artikulua.– Aplikazio eremua.

1.– Babes-araubide honetako aginduak Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoa osatzen duten eta I. eranskinean definitutako mugaketaren barruan dauden ondasun guztiei aplikatuko zaizkie.

2.– Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoa osatzen duten eta aurretiaz kultura-ondasun deklaratu diren ondasunei babes-araubide honetan jasotako araudia aplikatuko zaie lehenetasunez, eta, araubide honetan aurreikusita ez dagoenerako, dagozkion aurretiazko deklarazioak aplikatuko zaizkie modu osagarrian.

3.– Monumentu Multzoaren mugaketan sartuta dauden eta aurretiaz Balizko Arkeologia Gunearen deklarazioa izan duten zonaldeek babes-araubide hau izango dute: Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 65. artikulua, eta Balizko Arkeologia Guneak finkatzeko araudia ezarzen duen urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. artikulua eta horrekin bat datozenak.

4.– Espediente honetan ezarritako zehaztapenak nahitaez bete beharko dira, aurretik ezarritako edo eremu berean beste araudi sektorial batzuetan ezar daitezkeen beste xedapen guztiak betetzeari kalterik egin gabe, bereziki Ibilbide Berdeak eta/edo Bizikleta Bideak egokitzeko xedea duen foru-arauditik eratorritakoak, hemen arautzen diren eta araubide honetan ezarritakoak baino murriztaileagoak diren alderdietan.

3. artikulua.– Izaera loteslea.

1.– Eranskin honetako aginduak lotesleak dira, eta bertan aurreikusitako babes-neurrien arabera kontserbatu beharko da babestutako kultura-ondasuna.

2.– Hirigintza-, lurralde- eta ingurumen-antolamenduko tresnek beren baitan jaso beharko dituzte babestutako kultura-ondasunaren babesa eta kontserbazioa bermatzeko behar diren zehaztapenak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailaren aldeko txostena izan beharko dute, 6/2019 Legearen 47. artikuluekin bat etorriz.

4. artikulua.– Babestu beharreko balio kulturalak eta ondasunak.

1.– Kultura-ondasunaren deklarazio hau eragin duen ondare-balorazioaren arabera, Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoa ondasun aparta da EAEko industria-ondarean, eta balio kultural hauek ditu:

– Balio historikoa: ia 80 urteko bizitza erabilgarria izan zuen, eta trenbideak eragin handia izan zuen lotzen zituen udalerrri eta eskualdeen garapenean; zehazki, gizarteari, industriari eta hirigintzaren arloko garapenean. Gainera, oraindik kontserbatzen diren obra zibileko elementu askok eta eraikin askok ehun urte ere badituzte honezkero.

– Balio soziala: eragin handia izan zuen erabiltzaileen eguneroko bizimoduetan; izan ere, garraio bide eta komunikaziorako bide izan zen jende askorentzat: landaguneetako biztanleentzat, Debagoieneko fabriketako langileentzat, Arabako industriako langileentzat eta Arabako Lautadako nekazari entzat, besteak beste.

– Balio teknologikoa: Estatuko aurreneko trenbide elektrifikatuetako bat izan zen, eta, lurraldearen orografia gorabeheratsuaren ondorioz, konplexutasun tekniko handiko azpiegitura izan zen.

– Berezitasuna: XIX. mendean eta XX.aren lehen erdian espainiar Estatuan eraikitako bide metrikoko trenbiderik luzeena izan zen.

– Paisaiaren balioa: oso luzea zenez, Vasco-Navarro trenbidea hainbat motatako paisaiak (hiri-koak, industrialak, nekazaritzakoak, meatzaritzakoak eta abar) lotzen zituen ardatza izan zen.

– Lurralde arloko interesa: gizarte-, orografia-, ingurumen- eta hirigintza-aniztasun handiko hiru eskualde lotzen zituelako. Mekolalden Ferrocarriles Vascongados konpainiako trenbidearekin elkartzen zenez, EAEko hiru hiriburuak lehen aldiz geratu ziren trenez lotuta, eta, beraz, abiadura handiko trenen gaur egungo plangintzaren sorburua ere izan zen.

2.– Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzooan identifikatutako balioak babesteko asmoz, IV. eta V. eranskinetako zerrendetan jasotako ondasun higiezin eta higigarri guztiak babestuko dira, bai eta horien babes-inguruneak eta zaintza-eremua ere.

3.– Ondasun higiezin babestuak honako tipologia hauetan sailkatzen dira:

– Trenbidearen trazadura babestua: trenbide nagusien eta adarren jatorrizko ibilbidea Euskal Autonomia Erkidegoan zehar, 13. artikuluan zehazten den bezala.

– Obra zibila: trenbide-linearekin batera diseinatutako eta gauzatutako azpiegitura, trazadurak zituen oztopoei aurre egin ahal izateko: ibai-ibilguen kasuan, zubiak; komunikazio-bideen kasuan, gaineko edo azpiko pasabideak; eta, beste elementu orografiko batzuen kasuan, tunelak (mendiak zeudenean) edo biaduktuak (ibarbideak zeudenean).

– Arkitektura: trenbidearen azpiegiturarekin zuzenean lotutako eraikinak; hala nola, geltokiak, biltegiak, zama-lanetarako nasak, automotorren biltegiak, langileen etxeak, transformazio-azpi-zentralak eta azpiestazio elektrikoak.

– Elementu osagarriak: garrantzi txikiagoko ondasunak, trenbidea interpretatzen eta ulertzen laguntzen dutenak; hala nola, biltegi txikiak, geralekuak, euste-hormak, drainatzeak, lubakiak, erreken gaineko zubi txikiak, geltokietako nasak, deskarga-lekuak eta zamalekuak.

4.– Kontserbatutako trenbide-material mugikorrekotako tipologiarik adierazgarrienen osatzen dute ondare higigarri babestua (tren-makinek eta bagoiek, hain zuzen ere).

5.– Babes-araubide partikularretan, babestu beharreko ondare-balio espezifikoak deskribatzen dira, ondare higiezin eta higigarrien tipologia guztietarako.

II. KAPITULUA

BABES-ARAUBIDE OROKORRA

5. artikulua.– Aplikatu beharreko arau orokorrak.

1.– Babestutako kultura-ondasunak Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren mende daude, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zehapen, arau-hauste eta bestelakoei dagokienez, bai eta eremu berean ezarritako beste arau sektorial batzuetako zehaztapenen mende ere, bereziki foru-araudiarekin lotutakoak, horien xedea ibilbide berdeak eta/edo bizikleta-bideak egokitzea baita, babes-araubide honen 2.4 artikuluan ezarritako baldintzetan.

2.– Babestutako kultura-ondasunen jabeak, edukitzaileak eta haren gaineko eskubide errealeen gainerako titularrak behartuta daude hura kontserbatu, zaindu, babestu eta erabiltzera, hirigintzaren eta kultura-ondarearen arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan, haren osotasuna ziurtatu dadin, eta ez dadin hura galdu, suntsitu edo hondatu.

3.– Babestutako edozein kultura-ondasunen erabilerak bateragarria izan beharko du babesaren xede diren balio kulturekin, eta, betiere, ondasuna kontserbatuko dela eta haren balioa nabarmenduko dela bermatu beharko da.

4.– Babestutako kultura-ondasunaren titularrek ondasunerako sarbidea bermatu behar dute Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, informazioa eta sarbidea emanaz agintari eskudunei edo beren eskumenak egikaritzeko ardura duten funtzionarioei, eta ondasuna modu publikoan bisitatzeko eta aztertzeko aukera emanaz foru-organo eskudunak berariaz baimendutako ikertzaileei.

5.– Babestutako kultura-ondasunak osorik edo partzialki eraisteko, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da ezinbestean.

6.– Eranskin honetan jasotako araubide partikularren arabera babes bereziko maila duten kultura-ondasunak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen mende egongo dira, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 40. artikuluan xedatuta dagoen moduan.

6. artikulua.– Esku-hartzeak baimentzea.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 33. eta 46. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, monumentu-multzoa osatzen duten kultura-ondasun babestuetan, babes-ingurunean edo babes-eremuan edozein esku-hartze egiteko, dagokion foru-aldundian kultura-ondarearen arloan eskumena duen organoaren baimena beharko da, hirigintza-lizentzia edo administrazio-baimena eman aurretik, hori guztia batera eman beharreko baimen edo lizentziei kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik salbuetsita daude lurralde- eta hiri-antolamenduko planetan eta/edo babes-plan berezietan aurreikusitako jarduerak, baldin eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen organoak aldeko txostena ematen badu; kasu horretan, eragindako udalek zuzenean baimenduko dituzte.

7. artikulua.– Esku hartzeko proiektua.

1.– Babestutako kultura-ondasunen gaineko esku-hartzeek proiektu tekniko espezifiko bat beharko dute, ondasunaren eta esku-hartzearen izaerarekin bat datorrena. Ondasunaren titularrak aurkeztu beharko du proiektu hori, dagokion foru-aldundian kultura-ondarearen eskumena duen departamentuak onar dezan.

2.– Edonola ere, babestutako kultura-ondasunean egin beharreko esku-hartzeen aurretik, ondasunaren azterketa historiko-arkitektonikoa edo arkeologikoa egin beharko da, eta beharrezkoa balitz lan horiek profesional eta enpresa espezializatuen esku utzi beharko dira. Profesional eta enpresa horiek, gainera, egiaztatu beharko dute beharrezko gaitasun teknikoa dutela lanak bermerik handienekin egiteko.

Babestutako arkitekturaren kasuan, beharrezkotzat joz gero, Arkitekturaren Arkeologiaren Azterketa eskatu ahal izango da, edozein esku-hartze egin aurretik.

III. KAPITULUA

VASCO-NAVARRO TRENBIDEAREN ONDARE HIGIEZINA

1. ATALA

ONDARE HIGIEZINA BABESTEKO ARAUBIDE OROKORRA

8. artikulua.– Ondare higiezinaren zonifikazioa.

1.– Vasco-Navarro trenbidearen ondasun higiezinetan baimendutako eta debekatutako erabileren, jardueren eta esku-hartzeen araubidea zehazte aldera, babes-inguruneen eta zaintza-eremuaren araberako zonifikazioa ezartzen da. Eremu horiek Monumentu Multzoaren parte dira, eta atal honetan aurreikusitako agindu espezifikoak aplikatuko zaizkie.

2.– Babes-inguruneak bat datoz babestutako, isolatutako edo multzotan taldekatutako ondasun higiezinaren eremurik hurbilenarekin, eta babes-araubide espezifikoak honakoak arautzen ditu: babestutako ondasunak kontserbatzeko eta haiei balioa emateko onargarriak eta beharrezkoak diren esku-hartzeak, bai eta ondare-balioak defendatzearekin bateraezinak izateagatik debekata dauden jarduerak edo jarduketak ere.

3.– Babes-ingurunea honela definitzen da:

– Trazaduraren babes-ingurunea: trazaduraren tarte babestuetarako ezartzen da soilik (13. artikuluan daude definituta), baldin eta ez badira igarotzen hiri-kaleetatik eta ez badaude ondasun-multzo baten babes-ingurunean.

Horren barruan sartzen da lur-berdinketek, bideko elementu funtzionalek, obra zibilek eta elementu osagarriek hartutako azalera, betiere, kasu bakoitzean, kanpoko muga gisa hartuz lur-erazketako edo lubetako ezpondak lur naturalarekiko duen ebaketa-lerroa edo egituren ertzak lursailean duen proiektzio bertikala.

Hiri-lurzoruko kale publikoetatik igarotzen diren tarteetan, babestutako trazadura eta haren babes-ingurunea bat datoz kalearekin zabalera osoarekin.

– Ondasun-multzoen babes-ingurunea: I. eranskineko planoetan grafiatutako eremua da, unitate funtzional edo bisual identifikagarria osatzen duten tipologia desberdineko ondasun higiezinaren multzoetarako. Zehazki, honako hauek identifikatu dira: Gasteizen, Erretana eta Estibalizko multzoak; Legution, Urbina eta Villarrealgo multzoak; Arratzua-Ubarrundian, Landako multzoa; Leintz-Gatzagako multzoa; Eskoriatzan, Maringo multzoa; Iruaiz-Gaunan, Ereintxun eta Uribarri-Jauregiko multzoak; Arraia-Maeztun, Atauriko multzoa; eta Kanpezun, Antoñanako multzoa.

– Arkitektura isolatuaren babes-ingurunea: eraikinen fatxadetik 15 m-ko distantziara osatzen duten eremua da, eta, hala badagokio, trazaduraren babes-ingurunearen edo inguruko bideen kanpoko muga, horiek 15 m-tik beherako distantziara daudenean.

4.– Zaintza-eremua Monumentu Multzoko ingurumen- eta paisaia-balioen babes-eremu orokorra da, edozein lurralde-, sektore- edo udal-plangintzak baldintzatzaile gainjarritakotzat hartu behar duena trenbidearen ondare-balioa integratu, babestu eta sustatzeko orduan.

Zaintza-eremu hori ez da eraginkorra hiri-eremuetan, ez eta ondasun-multzo baten babes-ingurunean ere. Trazaduraren tarte babestuetan baino ez da ezartzen, eta bat dator alboetan dauden

5 m-ko zabalerako bi zerrendarekin, 3. apartatuko irizpideen arabera definitutako trazaduraren babes-ingurunearen kanpoko ertzetik neurtuta.

9. artikulua.– Babes-inguruneetan esku hartzeko araubide espezifikoa.

1.– Trazaduraren, ondasun-multzoen eta arkitektura isolatuaren babes-inguruneetan, indartu egingo da multzoaren trenbide- eta industria-izaera, eta altzariak, argiztapena eta norabide- eta interpretazio-seinaleak multzoaren ingurumen-balioarekin integratu eta harmonizatuko dira.

2.– Zehazki, honako esku-hartze hauek baimenduko dira, baldin eta babestutako ondasunaren babes-araubide espezifikoarekin bateragarriak badira:

– Irisgarritasuna hobetzea, ingurunearen balio kulturekin bat datozen materialak eta diseinuak erabiliz, ondasunen elementu bereizgarriak ezkutatu gabe eta haien osotasuna eta benetakotasuna mantenduz.

– Hiri-altzari txikiak instalatzea.

– Seinaleak eta segurtasun-elementuak jartzea, baldin eta dagokion foru-aldundiaren bizikleta-bideen eta/edo ibilbide berdeen araudi-erregulazioan eskumena duen erakundearen alde aurreko baimena badago horiek gauzatzeko, babes-araubide honen 6. artikuluan adierazitakoaz gain.

– Zuhaixka-landareak garbitzea eta sastrakak kentzea.

– Babestutako kultura-ondasunak edo haien babes-ingurunea ikusteari, hautemateari, aztertzeari edo gozatzeari eragiten dion edozein gehigarri kentzea.

– Lurrak mugitzea, Monumentu Multzoa kontserbatzen eta hobetzen lagunduko duten zerbitzu-azpiegiturak eta instalazioak jartzeko.

– Edozein kultura-ondasunetatik hurbil dauden zuhaitzen eta landareen mozketa selektiboa, egiaztatzen bada kultura-ondasunetan nolabaiteko eragina dutela, zaharberritzearekin bateraezina direla, edo ondare-multzoaren interpretazioa hutsaltzen dutela.

3.– Babes-inguruneetan, debekatuta dago eraikuntzak egitea eta babestutako ondasunen kutsadura bisuala edo pertzeptiboa eragitea; hau da, ondasuna edo haren ingurunea ikustea eragotzi, zaildu edo distortsionatzen duen edozein esku-hartze, erabilera edo ekintza puntual egitea. Zehazki, elementu hauek ezin izango dute babestutako kultura-ondasunen esparru bisuala eten:

– Energia edo telekomunikazioa banatu, sortu eta kontsumitzeko instalazioak.

– Errotuluak, seinaleak, hesiak eta kanpoko publizitatea.

– Hiri-altzariak (horren barruan sartzen dira itxiturak, olanak, mahaitxoak edo kanpoko argiak).

– Hiri-hondakinak biltzeko elementuak.

– Beste zuhaitz-espezie batzuk landatzea.

4.– Babes-ingurune baten barruan dauden baina IV. eranskinean babestutako kultura-ondasun gisa berariaz aipatzen ez diren ondasun higiezinak babesik gabeko ondasuntzat hartuko dira, eta horietan edozein esku-hartze mota onartuko da, eraispena barne. Hala ere, lurpeko hondakinak kontserbatu ahal izango dira, foru-organo eskudunak hala erabakitzen duenean, esku-hartze arkeologikoak ematen dituen emaitzen arabera. Ondasun horiek eraberritzeko edo ordeztzeko

jarduketetan, ez da bolumen-aldaketarik edo lerrokadurarik onartuko, salbu eta, foru-organo eskudunaren iritziz, ondasunari edo trenbideari balioa ematen laguntzen badute, eta, nolana ere, morfologiari eta materialei dagokienez, Monumentu Multzoaren ezaugarri adierazgarrienen araber diseinatuko dira.

5.– Babes-ingurunean egindako obra txikiak, betiere kultura-ondasun babestuan eragin materialik edo bisualik ez badute, dagokion foru-aldundian kultura-ondarearen eskumena duen organoari jakinarazi beharko zaizkio, gutxienez hilabete (1) lehenago.

10. artikulua.– Zaintza-eremuan esku hartzeko araubide espezifikoa.

1.– Zaintza-eremuan, udal-plangintzak erabileren eta jardueren araubidea zehaztu behar du; besteak beste, eraikin eta urbanizazio berriek trenbidearen trazadurarekiko izan behar duten gutxienerako tartea, bai eta horiek diseinatzeko eta gauzatzeko baldintzak ere.

Hala ere, babes-eremuaren barruan dauden eta babesik ez duten higiezin kasuan, babes-araubide honetako 9. artikuluko 4. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

2.– Araudi horretan, bai eta zaintza-eremuan edozein jarduketa baimentzeko orduan ere, Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoaren balio kulturalak errespetatzen direla eta irizpide hauek betetzen direla bermatu behar da:

– Trenbide-sistemaren interpretazio osoa bermatzea.

– Trenbideak lurraldetik eta lurralderantz duen irisgarritasuna ahalbidetzea, eta, bereziki, interesgarriak diren natura-, landa-, hiri- edo industria-giroetako paisaiei dagokienez.

– Babestutako ondasunak ikusaraztea, eta gauza bera egitea ondasunen eta erlazionatutako gainerako elementu eta espazio funtzionalen arteko loturarekin.

– Paisaiaren degradazioa saihestea, trenbidearen trazaduratik hautematen den bezala; aldi berean, esparru bisualaren interferentzia itzulezinak ere saihestea.

– Monumentu Multzoaren kutsadura bisuala eta akustikoa saihestea.

11. artikulua.– Ondare higiezinan esku hartzeko irizpide orokorrak.

1.– IV. eranskinean adierazitako ondasun higiezin babestuetan egiten diren esku-hartzeek bermatu egingo dute ondasun horien gaineko ezagutza, kontserbazioa, zaharberritzea eta birgaitzea, ondasun horiek eta inguruko ingurumen-balioak nabarmentzeko.

2.– Babestutako kultura-ondasunaren balio kulturalak transmititzen direla bermatzeko, oinarritzko jarduketa-printzipio hauek ezartzen dira: ezinbesteko eta gutxienerako esku-hartzea, prozeduren itzulgarritasuna, eta osotasuna eta benetakotasuna mantentzea.

3.– Debekatutzat joko da ondare higiezinari kalte egiten dion edo multzoaren irudia eta interpretazioa desitxuratzen edo degradatzen duen edozein esku-hartze, erabilera edo jarduera.

4.– Esku-hartzeek errespetatu egingo dituzte ondasunean bizirik dirauten eta ondasunaren bila-kaerari buruzko informazio esanguratsua ematen duten garai guztietako eranskin interesgarriak.

5.– Baimentzen diren gehikuntzek multzoaren harmonia errespetatu beharko dute, baina jatorrizko zatietatik bereiziko dira, faltsifikazio historikoak edo artistikoak eragozteko.

6.– Debekatuta dago babestutako ondasunaren teknika edo materialekin edo babestu beharreko balioekin bateragarriak ez diren teknikak eta materialak erabiltzea. Esku-hartzeetan erabilitako

teknikek eta materialek behar bezala bermatutako portaerak eta emaitzak eman beharko dituzte; zehazki, esperientziak edo ikerketak bermatutakoak.

7.– Babestutako kultura-ondasunetan, haien babes-inguruneetan edo zaintza-eremuetan onar daitezkeen esku-hartze guztietan, ingurumen-inpakturik txikiena duten aukera teknikoek izango dute lehentasuna, eta aukera horiek kontuan hartuko dute nolako eragina duten faunaren ugaltze-zikloetan.

12. artikulua.– Ondare higiezinaren irisgarritasun unibertsaleko arrazoizko neurriak.

1.– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32.4 artikulua betez, zenbait neurri arrazoizkotzat joko dira; hain zuzen ere, mugikortasun urriko pertsonak kultura-ondasun babestura modu autonomoan heltzeko aukera emango duten neurriak. Edonola ere, doikuntza horiek bateragarriak izan beharko dute babestutako balio kulturalekin.

2.– Trenbidearen trazadura eta obra zibila diseinatu eta egin zirenean, garai hartako trenbidearen prestazio teknikoak hartu ziren kontuan; beraz, motorrik gabeko ibilbide gisa prestatzerakoan, jatorrizko ezaugarri horiek ez dira funtsean aldatu behar (bidearen zabalera, luzetarako eta zeharkako maldak, biraketa-erradioak eta abar), irisgarritasun unibertsaleko baldintzetara egokitzeko. Nolanahi ere, zenbait doikuntza puntual onartuko dira, geltokietako nasetatik lur-berdinketara iristeko edo sarbide alternatibo berriak egiteko aukera emango duten desnibel txikiak kentzeko. Nasetan babes-hesiak jartzea saihestu beharko da.

3.– 1. mailako edo babes bereziko arkitekturan, komunikazio bertikala baldintza irisgarrietan ahalbidetzeko esku-hartzeak egin diren eraikinen kasuan, ez da beharrezkotzat jotzen jarduketa berririk egitea, kanpoaldetik eraikinetarako irisgarritasunean egokitzapen txikiak egitea izan ezik.

Egokitzapen txiki horietatik haratago irisgarritasunaren arloan esku-hartzeak behar dituzten eraikinen kasuan, artikulua honen laugarren puntuan xedatutakoari jarraituko zaio.

4.– 2. eta 3. mailako arkitekturan eta altuera bat baino gehiagokoetan, gehikuntzak egitea onartuko da, higiezina egokitzeko hala egin behar denean, eta, ahal dela, barnealdean, betiere ezinbesteko eta gutxieneko esku-hartzearen eta itzulgarritasunaren printzipioei jarraikiz, eraikinen ondare-balioekin bateragarriak diren teknikak eta materialak erabilia, higiezina desitxuratu gabe edo hura ikustea oztopatu gabe, eta egituraren egonkortasuna eta osotasuna kaltetu gabe.

5.– 2. mailako B azpimailan dauden eraikinak edo babes ertainekoak sendotzeko jarduketek ez dute irisgarritasun-neurririk behar. Berrerabiliz gero, aurreko apartatuan babes ertainerako ezarritako irizpideak hartuko dira erreferentziazat.

6.– Esku-hartze guztietan, aukera berritzaileak ezarri beharko dira, ahalik eta egokitzapen eraginkorrena ahalbidetzeko, eta, betiere, babestutako kultura-ondasunaren ondare-balioak zaindu beharko dira.

2. ATALA

TRAZADURA BABESTEKO ARAUBIDE PARTIKULARRA

13. artikulua.– Babestutako trazaduraren eta haren balio kulturalen definizioa.

1.– Monumentu Multzooan babestutako trenbidearen trazadurak bat egiten du jatorrizko ibilbideko zenbait tarterekin; hain zuzen ere, oraindik lur-berdinketa mantentzen duten tarteekin edo berreskuratzeke moduan dutenekin (lerro jarraituan daude grafiatuta I. eranskineko mugaketa-planoetan).

2.– Lurzoruaren okupazio berrien ondorioz (urbanizazioak, errepideak, industria-instalazioak eta abar) desagertu diren tarteak I. eranskinean daude identifikatuta (lerro etenean daude grafia-tuta), soilik jatorrizko trenbide-linearen trazadura osoa erregistratu eta interpretatzeko asmoz.

Desagertutako tarte horiei ez zaie aplikatuko II. eta III. kapituluetan (1. atala) ezarritako babes-araubide orokorra, ezta 14. artikuluan araututako araubide espezifikoa ere.

3.– Hauek dira Vasco-Navarro trenbidearen babestutako trazaduraren balio kulturalak:

– Konektagarritasuna: Monumentu Multzoa osatzen duten elementu guztiak lotzen dituen ardatz gisa. Horri esker, unitate kultural argia eta mugatzeko modukoa eratzen da.

– Berezitasuna: espainiar Estatu osoan eraikitako bide metrikoko trenbiderik luzeena izan zen.

– Interpretaziorako gaitasuna: trenbidea ulertzeko gakorik esanguratsuena da, sistemak eta haren elementuen arteko harremanek nola funtzionatzen zuten interpretatzeko.

– Balio funtzionala: ahalmena duelako motorrik gabeko mugikortasun-modu berriak (tokikoak edo eskualdekoak) bideratzeko.

4.– Deskribatutako ondare-balioen garrantzia dela eta, trenbidearen trazadurari babes bereziko maila eman behar zaio.

14. artikulua.– Babestutako trazaduran esku hartzeko araubidea.

1.– Vasco-Navarro trenbidearen babestutako trazaduran egiten den jarduketa oro ibilbidearen jarraitutasuna bermatzera egongo da bideratuta, bai eta sistema eta haren trenbide- eta industria-izaera interpretatzen laguntzera ere.

2.– Trazaduraren ikerketa zientifikoarekin lotutako erabilerak eta jarduerak lehenetsiko dira, jatorrizko bidea eta bere elementu funtzionalak aurkitu eta berreskuratzeko.

3.– Jarduera kulturalak egin eta sustatu ahal izango dira, betiere bateragarriak badira lur-berdinketaren eta trenbideari lotutako gainerako elementuen kontserbazioarekin, eta Vasco-Navarro trenbidearen ondare-balioen berri emateko balio badute.

4.– Hiri-kaleetatik igarotzen ez den trazadura babestuaren kasuan, erabilera bateragarria izango da hala motorrik gabeko ibilgailuetarako nola motor elektriko txikiko ibilgailuetarako; betiere, horren ondorioz, jatorrizko bidea edo lur-berdinketa edo haren elementu funtzionalak ez badira suntsitzen edo modu itzulezinean eraldatzen.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, onargarritzat jotzen da zaintzari, mantentze-lanei eta zerbitzu publikoari lotutako ibilgailu motordunen zirkulazioa (anbulantziak, suhiltzaileak edo polizia, adibidez).

Era berean, salbuespen gisa onar daitezke nekazaritzako, basogintzako edo abeltzaintzako erabilerak kudeatzeko ibilgailu motordunak, baita inguruko baserrietara sartzeko ibilgailuak ere, baldin eta sarbide alternatiborik ez badago eta ibilbidearen funtzionaltasunean eraginik ez badu. Kalteak gertatuz gero zorua berrezartzea bermatuko duten bermeak ezarri beharko dira, eta horrek babes-araubide honen 6. artikuluan aipatzen den aldeko txostena izan beharko du, eta trazadura bizikleta-bide edo/eta ibilbide berde gisa egokitu bada, arlo horretan eskumena duen foru-erakundearen aldeko txostena ere izango du.

5.– Hiri-kaleetatik igarotzen den trazadura babestuaren kasuan, erabilera bateragarritzat hartuko da hura ibilbide motorizatu gisa erabiltzea, betiere udal-plangintzan hala aurreikusten bada.

6.– Vasco-Navarro trenbidearen babestutako trazaduran, jarduketa hauek onartuko dira:

– Lur-berdinketa eta ingurumen-balioa duten elementu osagarriak sendotzea, zaharberritzea eta balioa ematea.

– Lur-berdinketaren zorua konpontzea; ahal dela, zoruaren akaberak biguna izan beharko du.

– Bidea eta/edo lur-berdinketa egokitzea, motorrik gabeko ibilbide gisa erabilia izan dadin. Nola-nahi ere, jatorrizko zabalerari eutsiko zaio oraindik bide berde edo bizikleta-bide gisa egokitu ez diren tarteetan.

Salbuespen gisa, Vasco-Navarro trenbidean kontserbatutako trazadura-tarteetan, Ibilbide Berde eta/edo Bizikleta Bide gisa egokitzeko esku-hartze puntualak onartuko dira, gai hori arautzen duen foru-araudiarekin bat etorritik. Berariazko proiektu tekniko bidez justifikatu beharko da lur-berdinketaren jatorrizko zabalerari eutsiko dion beste irtenbide baten bideraezintasun teknikoa edo ekonomikoa.

– Monumentu-multzoaren kontserbazioarekin, hobekuntzarekin eta gozamenarekin lotutako azpiegiturak seinaleztatze eta gauzatzeko elementuak, zerbitzuen eroanbideak eta instalazioak instalatzea, baldin eta horiek gauzatzeko dagokion foru-aldundiaren bizikleta-bideen eta/edo ibilbide berdeen arau-erregulazioan eskumena duen erakundearen aurretiazko baimena badu, babes-araubide honen 6. artikuluan adierazitakoaz gain.

– Trenbidearekin zerikusirik ez duen elementu oro kentzea, baldin eta trenbidea eraiki ondoren gehitu bada, babestutako ondasunak ikusteko aukera degradatzen edo oztopatzen badu, edo trenbide-sistemaren interpretazioa eragozten badu; esate baterako, lursailtako itxitura berriak, zuhaitziak, eraikuntza osagarri txikiak eta abar.

7.– Aurreko obrak egiten diren bitartean, eta lur-berdinketaren jatorrizko oinarriak edo bideko elementuak aurkituz gero (hala nola, errailak, trabesak edo katenariak), beharrezkoak diren arkeologia-lanak egin beharko dira, kultura-ondarearen eskumena duen foru-organoak ezarritako irismenarekin.

8.– Jarduketa sektorial puntualen ondoriozko behin-behineko desbideratze orok kultura-ondarearen eskumena duen foru-organoaren baimena beharko du.

9.– Herrien barrutik doazen tarteetan, eta, zehazki, Vasco-Navarro trenbidearen ibilbidea kale publikoetan barrena igarotzen denean, babestutako trazadura kalearen zabalera osoa izango da. Tarte horiek udal-plangintzak arautuko ditu, eta ibilbide publikoa inola ere ez desagerraraztea izango da muga bakarra.

3. ATALA

OBRA ZIBILA BABESTEKO ARAUBIDE PARTIKULARRA

15. artikulua.– Babestutako obra zibilaren eta haren balio kulturalen definizioa.

1.– Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoan babestutako obra zibila IV. eranskineko 1. zerrendan jasotakoa da. Obra zibileko ondasun bakoitzaren ondare-balioen garrantziaren arabera, balio horiek babes bereziko (IV.1.1 zerrenda) edo ertaineko (IV.1.2 zerrenda) mailetan sartuko dira.

2.– VI. eranskineko 1. zerrendan, trenbideari lotutako obra zibila ere aipatzen da, baina gaur egun desagertuta edo berreraikita dagoena. Jatorrizko trenbide-sistemaren interpretazio osoa ahalbidetzea da zerrenda horren asmoa, soil-soilik.

3.– Babestutako obra zibilak, kasu bakoitzean, ondare-balio hauek edo hauetako batzuk ditu:

– Proiektuaren eta eraikuntzaren kalitate teknikoa: bereziki, tunelen eta biaduktuen egituren konplexutasunagatik.

– Egituren balioa: gaineko pasabideek, zubiek, tunelek eta biaduktuek jatorrizko sostengu-egituren sistema kontserbatzen dute.

– Balio funtzionala: trazaduraren jarraitutasuna bermatzeagatik, orografiak edo beste bide batzuek trazadura eteten duten lekuetan.

– Interpretaziorako gaitasuna: trenbide-sistemaren funtzionamendua eta trazadura interpretatzeko gako berriak ematen dituzte.

– Balio arkeologikoa: arkitekturaren arkeologiaren aztergai diren obra zibileko elementu guztietarako.

16. artikulua.– Obra zibiletan esku hartzeko araubide orokorra.

1.– Obra zibiletan onartutako jarduketek ezaugarri hauek bete eta sustatu behar dituzte:

– Trenbidearen trazaduraren jarraitutasuna.

– Trazaduraren eta babestutako ondasunen arteko erlazioa, eta ondasunek beraien artean duten erlazioa.

– Obra zibilaren funtzionaltasuna eta bertatik segurtasunez igarotzeko aukera.

2.– Obra zibilaren babes-ingurunearen barruan dauden ibilgailuratze-plazatxoek, galtzaden, espaloien eta bazterguneen espazio funtzionala azalerek eta kokapenek aldaketa puntualak izan ditzakete, baldin eta aldaketa horiek Vasco-Navarro trenbidera heltzeko modua edo trenbidearen berri emateko modua hobetzearekin erlazionatutako erabileretarako izango badira, eta, betiere, babestutako ondasunen esparru bisuala eragotzi gabe.

3.– Biadaktuak, zubiak, tunelak eta gaineko zein azpiko pasabideak ezin dira beren kokalekue-tatik bereizi, eta, beraz, ezin dira mugitu.

17. artikulua.– Babes bereziko obra zibiletan esku hartzeko araubidea.

1.– Babes berezia duten obra zibiletan, jatorrizko egoera lehengoratzeko jarduketak onartuko dira; honako hauek, zehazki: fabrikako lanak zaharberritzea, egiturak sendotzea eta berreskuratu ezin diren zatiak ordeztzea, eta interesik ez duten edo multzoarekin kontraste negatiboa egiten duten eranskin edo obra berriak kentzea.

2.– Egiturak sendotzeko lanak itzulgarritasun-irizpideak erabiliz egingo dira, eta arretaz zainduko da obra berriaren eta lehengoaren arteko ukipen-azaleraren tratamendua; hau da: jarritakoak ez du inondik ere lehendik zegoena suntsituko. Hala, debekatuta dago kareorezko horma masiboek egitura kapsulatzea zementuzko morteroz egindako zarpiatuekin, aireztatu gabekoekin, plakazko estalduradunekin, alikatatuekin edo forratuekin, baldin eta materialari arnasa hartzeko aukerarik ematen ez badiote edo, hezetanaren ondorioz, materiala degradatzen badute.

3.– Egitura hauetan egingo dira esku-hartzeak: horma-bularretan, kontrahormetan, zubi-branketan eta ezproietan, gangetan eta pitetan, plementu erresistenteetan, eta tinpanoetan; hala ere, sostengu-funtzioa betetzen ez duten elementu isolatuak (esate baterako, harlanduak, harlanduxkoak, harlangaitzak eta dobelak) konpondu, zurkaiztu edo ordeztu baino ezin izango dira egin.

4.– Ez da baimenik emango ekarpen berriak egiteko, hala nola, taula berriak edo eraikitako eranskin-bolumenak, baldin eta hasierako egituren osotasuna eta egonkortasuna kaltetuko edo eraldatuko badute.

5.– Zimenduak eta euste-hormak berri behar badira, modu egokian banatu beharko dira sendotuko dituzten zapata, lauza edo horma berrietatik, ez dira jatorrizko eraikuntzan zementuzko hormigoiz zurrunduko, ez eta junturak modu masiboan berdinduko ere, eta inola ere ez dute lurpeko uren pilaketarik eragingo, ez eta maila freatikoa igoko ere eraikuntzek ukitzen dituzten lurretan.

6.– Dagoen egituraren profila, sekzioa, modulazioa eta proportzioak mantenduko dira.

7.– Egituraren kargak transmititzeko eta banatzeko sistema mantenduko da, eta ez zaio gainkarga puntualik jarriko, ez eta gehiago zurrunduko ere.

8.– Babestu egingo dira harlangaitz kontzertatuz, harlanduxkoz edo harlanduz egindako horma-atalak. Hormetako kanpo-estalduren ehundurek eta itxura kromatikoek lehenetik zeuden antzinakoenen patroiak bete beharko dituzte, batez ere kareorezko juntura hondoratu edo nabarmenduetan, zuriz pintatutakoetan edo harea-kolorekoetan; luzituetan eta kareztaduretan.

9.– Jatorrizko petrilak eta barandak kontserbatu eta zaharberrituko dira, eta frogatzen bada piezaren bat ezin dela errekuiperatu, pieza hori modu puntualean ordeztu ahal izango da.

18. artikulua.– Babes ertaineko obra zibiletan esku hartzeko araubidea.

1.– Babes ertaineko obra zibiletan, aurreko ataleko jarduketaz gain, eraikuntzaren zenbait aldaketa partzial onartuko dira; hain zuzen ere, konposizioaren batasuna aldatzen ez duten eta haren elementu tipologiko esanguratsuenak errespetatzen dituzten aldaketak.

2.– Trenbidearen trazadurari berriz ere balioa emateko eta erabiltzen hasteko jarduketetan, taula gaineko esku-hartzeak onartu ahal izango dira, mugikortasun-baldintza berrietara egokitu dadin.

3.– Jatorrizko barandak edo petrilak ezin badira zaharberritu, eta, ondorioz, ordeztu egin behar badira, trenbideko baranda eta petrilik antzinakoenen traza emango zaio diseinu berriari, materialari, formari, tamainari eta itxurari dagokienez.

4.– Babes ertaineko zubien kasuan, eta betiere agintaritzaren hidraulikoak ibaiaren ibilguaren oztupo larritzat jotzen baditu zubi horiek, proiektu indibidualizatu bat egingo da, eta, proiektu horretan, zubiari eragiten ez dioten beste alternatiba batzuen bideraezintasuna egiaztatu ondoren, obra zibilaren ondare-balioa gehien errespetatzen duten eta uholde-arriskua murrizten duten esku-hartzeak zehaztuko dira. Nolanahi ere, kultura-ondarearen eskumena duen foru-organoak baimendu beharko ditu esku-hartze horiek.

4. ATALA

ARKITEKTURA BABESTEKO ARAUBIDE PARTIKULARRA

19. artikulua.– Babestutako arkitekturaren eta haren balio kulturalen definizioa.

1.– Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoan babestutako arkitektura IV. eranskineko 2. zerrendan jasotakoa da, eta, kasu bakoitzean, babes-maila zehazten da, 20. artikuluko sailkapenaren arabera.

2.– VI. eranskineko 2. zerrendan, trenbideari lotutako eraikinak ere aipatzen dira, baina gaur egun desagertuta daudenak. Jatorrizko trenbide-sistemaren interpretazio osoa ahalbidetzea da zerrenda horren asmoa, soil-soilik.

3.– Babestutako arkitekturak, kasu bakoitzean, ondare-balio hauek edo hauetako batzuk ditu:

– Balio historikoa: beste higiezin batzuk baino antzinakoagoa izateagatik edo garai jakin baten erakusgarri izateagatik.

– Balio arkitektonikoa, ikuspuntu hauetatik:

a) Tipologikoa: trenbidearen eraikuntza-fase bakoitzean diseinatutako arkitekturaren adibide adierazgarri gisa.

b) Egiturakoa: bere egitura-sistemaren berezitasunagatik, adierazgarritasunagatik, konplexutasunagatik edo izaera berritzaileagatik, eta/edo kontserbazio-mailagatik.

c) Arkitekturaren eta eraikuntzaren kalitatea: nabarmena izateagatik diseinuaren eta eraikuntzaren arloan, erabilitako materialen kalitateagatik edo eraikuntza-tekniken konplexutasunagatik.

d) Konposizioa eta forma: bolumenen konfigurazio arretatsuagatik eta asmo estetikoak duten fatxaden konposizioagatik.

– Balio funtzionala: trenbide-jarduerari lotutako espazio nagusiak kontserbatzen direlako, eta azpiegiturak eta multzoko elementuen arteko erlazio espazio-funtzionalak ere kontserbatzen direlako, edo berrerabiltzeko modukoak direlako.

– Paisaia- edo ingurumen-balioa: mugarria delako paisaiari dagokionez, eta/edo trazadura lurraldean integratzen laguntzeko eta trenbide-sistema interpretatzen laguntzeko gaitasuna duelako.

– Arrarotasuna edo berezitasuna: tipologia edo estilo arkitektoniko baten testigantza bakarra delako, eksklusiboa den ezaugarriren bat duelako edo, geltokien kasuan, herri bakoitzeko eraikin enblematikoak direlako.

– Balio arkeologikoa: eraikina dokumentu/aztarnategi historikotzat hartzea.

4.– Babestutako eraikin bakoitzaren eta haren ondare-balio espezifikoaren deskribapen zehatza 0. eranskinean dago jasota. Vasco-Navarro trenbidearen arkitekturari buruzko fitxak, espedienteko ondare-balorazioari buruzko txostenari erantsita.

20. artikulua.– Arkitekturaren babes-mailak.

1.– Babestutako arkitektura honako babes-maila hauetan sailkatzen da, balio kulturalen eta kontserbazio-egoeraren arabera:

– 1. maila edo babes bereziko (IV.2.1. zerrenda): multzo honetan sartzen diren eraikinek izaera berezia eta aparteko balioak dituzte, eta, betiere, jatorrizko ezaugarriak berreskuratzeko aukera ematen duen kontserbazio-egoeran daude.

Vasco-Navarro trenbideko 5 geltokirik nabarmenenak dira, denak ere trenbidearen eraikuntza-faseetako estilo arkitektonikoen adibiderik esanguratsuenak.

Babes bereziko eraikinetan egiten diren jarduketan helburua izango da eraikin horiek «in situ» kontserbatzea, jatorrizko ezaugarriak zaharberitzea eta balioa nabarmentzea, eta, betiere, eraikin horien elementu tipologikoak, morfologikoak, egiturakoak eta eraikuntzakoak errespetatu beharko dira.

– 2. maila edo babes ertainekoa (IV.2.2 zerrendak): 2 azpimailatan banatzen da:

a) 2. maila edo A azpimailako babes ertainekoa (IV.2.2.a zerrenda): multzo honetan sartzen diren eraikinek ez dute aparteko baliorik, baina, beren tipologiaren, kanpoko itxuraren, osotasunaren edo benetakotasunaren berezitasunagatik edo adierazgarritasunagatik, Monumentu Multzoaren parte interesgarriak dira.

Eraikin hutsak dira, berrerabiltzeko aukera handia dutenak edo une honetan erabiltzen direnak, dituzten ezaugarri nagusiak errespetatuz zaharberrituak izan ostean.

Babes ertaineko A azpimailako eraikinetan egingo diren ekintzak eraikin horiek kontserbatzera, duten balioa nabarmentzera eta funtzionalitatea bermatzera egongo dira bideratuta; edonola ere, oinarrizko elementu tipologikoak, morfologikoak, egiturakoak eta eraikuntzakoak errespetatu beharko dira.

b) 2. maila edo B azpimailako babes ertainekoa (IV.2.2.b zerrenda): multzo honetan sartzen diren eraikinek, jatorriz, ondare-balio apartak edo nabarmenak dituzte, baina, hala ere, oso kalte-tuta geratu dira, abandonatuta eta kontserbazio-egoera txarrean egoteagatik.

Babes ertaineko B azpimailako eraikinetan egingo diren ekintzak, gutxienez, kontserbatutako egiturak sendotzera eta haien narriadura geldiaraztera egongo dira bideratuta.

– 3. maila (IV.2.3 zerrenda): multzo honetan sartzen diren eraikinek Monumentu Multzoa interpretatzeko funtsezko elementuak dituzte, garrantzi gutxiagoko berezko balioak izan arren edo eraldaketa garrantzitsuak izan arren.

3.– Babes-mailako eraikinetan egiten diren jarduketak bi babes-azpimaila nagusietarako deskribatutako helburuetara egongo dira bideratuta, eta, gutxienez, haien kontserbaziora eta finkapenera, betiere haien bolumetria, kanpoko itxura eta oinarrizko egitura-banaketa errespetatuz.

21. artikulua.– Babestutako arkitekturan esku hartzeko araubide orokorra.

1.– Monumentu Multzoaren arkitektura babestuari eragiten dion esku-hartze orotan, haren konfigurazio bolumetrikoa eta lerrokadurak mantendu beharko dira, 2. mailako B azpimailako edo babes ertaineko araubide espezifikoa ezarritakoa gorabehera.

2.– Barruko elementu babestuak kanpoko ingurutzailen babes-maila berarekin tratatuko dira, eta saihestu egingo da barnealdea hustea eta fatxadak soilik kontserbatzea asmo estetikoarekin edo «façadism» delako asmoarekin.

3.– Esku-hartzeak egin behar badira eraikinak segurtasunaren, irisgarritasunaren, efizientzia energetikoaren, osasungarritasunaren eta bestelakoen arloan indarrean dagoen araudi sektorialera egokitzeko, konponbide berritzaileak erabili beharko dira benetako egokitzapen-mailarik handiena lortu ahal izateko, eta, betiere, babestutako kultura-ondasunaren ondare-balioak zaindu.

4.– Salbuespenez, 2. eta 3. mailako eraikinetan, gehikuntzak egitea onartuko da, higiezina eraikingintzaren arloan indarrean dagoen araudira egokitu dadin, betiere gutxieneko esku-hartzearen eta itzulgarritasunaren printzipioei jarraikiz, eraikinaren ondare-balioekin bateragarriak diren teknikak eta materialak erabilita, higiezina desitxuratu gabe edo hura ikustea oztopatu gabe, eta egituraren egonkortasuna eta osotasuna kaltetu gabe.

5.– Aurreko puntuan adierazitako eranskinen kasuan, arreta handiz zainduko da obra berriaren eta lehengoaren arteko ukipen-azaleraren tratamendua; hau da: jarritakoak ez du inondik ere lehendik zegoena suntsituko; saihestu egingo da landatzeak egitea, mugigarriak ez diren estalkiak jartzea eta obra babestuetan zuloak egitea; gaur egungo morteroak xaflaz banatuko dira lehengo obratik; eta sistema arin, industrializatu eta desmuntagarriak erabiliko dira dagoena ukituko duten bolumenak eraikitzeko.

6.– Saihestu egingo dira babestutako arkitekturan inpaktu bisuala edo akustikoa eragiten duten esku-hartzeak, hala nola, publizitate komertziala edo instalazio berriak jartzea; esate baterako, eguzki-energiaren kaptadoreak, antenak eta ageriko eroanbideak fatxadetan edo estalkietan.

7.– Espedientean dagoen ondare-balorazioari buruzko txostenari erantsitako 0. eranskinean jasotako arkitekturari buruzko banakako fitxetan, ordezkagarritzat jo dira ondasunaren ezaugarri bereizgarriekin zerikusirik ez duten eta ondare-balioak desitxuratzen dituzten elementuak. Elementu horiek kendu, desmuntatu edo ordeztu egin daitezke, foru-organo eskudunaren aurretiazko baimenean ezarritako baldintzetan.

8.– Espedientean dagoen ondare-balorazioari buruzko txostenari erantsitako 0. eranskinean jasotako arkitekturari buruzko banakako fitxetan, degradatzailatzat jo dira eraikinaren ondare-balioekin bateraezinak diren elementuak, bai eta eraikinaren inguruan kutsadura bisuala edo akustikoa eragiten duten elementuak ere. Elementu horiek ezingo dira kontserbazio- edo sendotze-jarduketan xede izan, eta kendu egin beharko dira ondasunaren gaineko esku-hartze integrala egiten denean, eskumena duen foru-organoak alde aurreko baimena emanda.

22. artikulua.– 1. mailako edo babes bereziko arkitekturan esku hartzeko araubidea.

1.– 1. mailako edo babes bereziko arkitekturan egiten diren esku-hartzeek guztiz itzulgarriak izan beharko dute. Esku-hartzeak itzulgarritzat joko dira, baldin eta iraganean eraikitako testigantzen materialtasunari buruzko funtseko informaziorik ez badute hondatzen edo informazio hori ez bada modu konponezinean galtzen, eraikitakoa desmuntatu beharko balitz ere.

2.– Jarduketa hauek onartuko dira:

– Hondatutako zatiak zaharberritzea eta desagertutako zatiak berreraikitzea, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 34.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta kasuetan. Egungo arkitektura-balioekin bateragarriak diren materialak eta teknikak erabiliko dira, eta, ahal den neurrian, irtenbide tradizionalak lehenetsiko dira.

– Barrualdeko espazioaren jatorrizko banaketa eta antolamendua lehengoratzea.

– Ondasun higiezinaren eta trenbide-jarduerari lotutako gainerako elementuen arteko lotura espazial, funtzional eta bisualak leheneratzea.

– Egitura sendotzea eta, hala badagokio, berreskuratu ezin diren zatiak ordeztea. Edonola ere, beren horretan mantendu beharko dira material orokorrak eta kokapenak edo kotak, egungoak zein dokumentatuak, kanpoko zein barruko sostengu-hormetan, forjaketetan, eskaileretan eta estalduretan.

– Berriki egindako edozein obra kentzea, baldin eta interesik ez badu, ondasun higiezinaren edo inguruaren balio kulturekin kontraste negatiboa egiten badu, edo horren gaineko kutsadura bisual edo akustikoa eragiten badu.

23. artikulua.– 2. mailako edo babes ertaineko arkitekturan esku hartzeko araubidea.

1.– 2. mailako A azpimailako edo babes ertaineko arkitekturan, aurreko artikuluan deskribatutako jarduketez gain, hauek ere onartuko dira:

– Fatxadak zaharberritzea. Baimendu egingo dira aldaketa partzialak, baldin eta konposizioaren batasuna hausten ez badute eta balio bereziko elementuak errespetatzen badira.

– Barnealdeko espazioak zaharberritzea. Baimendu egingo dira espazio-antolamenduko aldatketak, balio handieneko espazioen edo erabilera nagusia dutenen itxura mantentzen bada.

– Egituratik berreskuratu ezin daitezkeen zatiak ordeztea, baina eskema eta material orokorrak mantenduz. Era berean, forjaketen kota aldatu ahal izango da, baina baoen eta erlaitzen kota bere horretan utzi beharko da.

2.– 2. mailako B azpimailako edo babes ertaineko arkitekturan, gutxieneko esku-hartze gisa onartuko da kontserbatutako egiturak sendotzea, bai eta egitura horien narriadura geldiarazteko babes-lanak egitea ere. Berrerabiliz gero, barrualdea egokitzeko eta estaltzeko esku-hartzeak onartuko dira; eta, desagertutako zatiak berreraikitzeako esku-hartzeen kasuan, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 34.6 artikuluan aurreikusitako kasuetara mugatu beharko dira.

24. artikulua.– 3. mailako arkitekturan esku hartzeko araubidea.

1.– 3. mailako arkitekturan, bi babes-maila nagusietan deskribatutako jarduketez gain, honako hauek ere onartuko dira:

– Kontserbatutako egiturak sendotzea.

– Fatxadak zaharberritzea, baoak partzialki aldatzeko edo berriak irekitzeko aukerarekin, betiere konposizio-irizpide orokorrak errespetatuz.

– Barruko espazioaren eta funtzioen berrantolaketa.

– Egituratik berreskuratu ezin daitezkeen zatiak ordeztea, material generikoa mantenduz eta forjatuen kota aldatzeko aukera emanaz.

Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, organo eskudunak material-aldaketa partzialak baimenduko ditu.

– Jatorrizko bolumenaren gainean egindako jasodurak edo gehikuntzak kentzea, horiek batez-bezetan direnean ondasunaren ondare-balioarekin.

5. ATALA

ELEMENTU OSAGARRIAK BABESTEKO ARAUBIDE PARTIKULARRA

25. artikulua.– Elementu osagarrien eta haien balio kulturalen definizioa.

1.– Monumentu Multzoan babestutako elementu osagarriak IV. eranskineko 3. zerrendan jasotakoak dira, eta dekretu honen III. eranskineko 26. artikuluan aurreikusitako esku-hartzeen araubidea aplikatuko zaie.

2.– Hauek dira elementu osagarrien balio kulturalak:

– Ingurumen-balioa: trazadura paisaian integratzen laguntzen dute.

– Interpretaziorako gaitasuna: trenbidearen industria- eta garraio-izaera indartzen dute, batez ere trenbidea osatzen zuten elementuak desagertu direlako (trabesak, errailak eta abar).

26. artikulua.– Elementu osagarrietan esku hartzeko araubidea.

1.– Oro har, elementu osagarriak Vasco-Navarro trenbidearen balioa nabarmentzeko edo haren lur-berdinketa berrerabiltzeko proiektuetan sartuko dira, eta jarduketa hauek onartuko dira:

– Egiturak egonkortzea eta, hala badagokio, berreskuratu ezin diren atalak ordeztea, material generikoa eta proportzio nagusiak mantenduz.

– Landareak garbitzea eta sastrakak kentzea, baldin eta landareek eta sastrakek elementuaren ikusgaitasunari, funtzionaltasunari edo egonkortasunari eragiten badiote.

– Seinaleak eta interpretaziorako baliabideak jartzea.

2.– Salbuespen gisa, elementu osagarriek modu konponezinean arriskuan jartzen badituzte trenbidearen trazadura egokitzeko edo hari jarraipena emateko lanak, elementu horiek desmuntatu edo kendu ahal izango dira. Hori behar bezala justifikatu beharko da dagokion proiektuan, eta kultura-ondarearen eskumena duen foru-organoaren berriazko baimena beharko da.

3.– Araubide hau indarrean sartzean, trazadurako zatiren bat motorrik gabeko ibilbide gisa egokituta baldin badago, kontserbazio- eta mantentze-lanetan sartuko dira elementu osagarrien ikusgaitasuna ahalbidetzeko beharrezkoak diren lanak, Vasco-Navarro trenbidea interpretatzeko diskurtsoaren parte gisa.

IV. KAPITULUA

VASCO-NAVARRO TRENBIDEAREN ONDARE HIGIGARRIA

27. artikulua.– Ondare higigarriaren eta haren balio kulturalen definizioa.

1.– Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzooan babestutako ondare higigarria V. eranskinean dago zehaztuta, eta babes ertaineko maila du.

2.– Babestutako ondasun higigarriek balio kultural hauek dituzte:

– Balio historikoa: XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Estatuko zein nazioarteko fabrikatzaile garrantzitsuenetako batzuek egindakoak dira.

– Balio teknologikoa: kontserbatutako motorrek trakzioaren bilakaera teknikoa dokumentatzen dute (lurrun bidezkoak, elektrikoak eta konbustio elektrikoak dira).

– Interpretaziorako gaitasuna: trenbide-sistema azaltzeko diskurtsoa osatzen dute.

28. artikulua.– Ondare higigarrian esku hartzeko araubidea.

1.– Honako esku-hartze hauek baimendu ahal izango dira babestutako ondasun higigarrietan, betiere ondasunak kontserbatzeko, etorkizunera osorik transmititzeko, eta duten industria- eta trenbide-izaera mantentzeko asmoz egiten badira:

– Prebentziora bideratutako kontserbazioa: zeharkako zenbait ekintza dira, ondasuna segurtasun-baldintza onenetan erabiltzeko aukera emango dutenak, eta edozein motatako narriaduretatik babestuko dituztenak; hala nola, berotik, hezetasunetik, kutsaduratik, agente kimiko eta biologikoetatik, bibrazioetatik eta kolpeetatik, besteak beste. Era berean, multzo honetan sartzen dira aldizkako zenbait ekintza zuzen ere, ondasuna behar bezala mantentzeko beharrezkoak direnak.

– Kontserbazioa: babestutako ondasun higigarrian esku hartzeko zuzeneko ekintzak dira, ondasunaren narriadura moteltzera bideratutakoak.

– Zaharberitzea: ondasuna hobeto ulertzeko asmoz egingo diren ekintza zuzenak, betiere ondasunaren integrazio formala, fisikoa eta historikoa errespetatuz, agresiboak ez diren teknikak erabiliz. Horretarako, alde zuzenetik, zaharberritzaile profesional batek aztertu eta diagnostikatuko du pieza bakoitza, dagokion foru-aldundiaren baimena jaso ondoren.

2.– Tren-makinak eta bagoiak direnez, izaera dinamikoa dute, eta, ondorioz, babestutako ondasun higigarriak instalatzeko baimena eman ahal izango da, ahal dela, lur-berdinketatik hurbil dagoen edozein tokitan, inguru horren trenbide-izaera ikusarazteko; eta ez da lekualdaketatzat hartuko, baldin eta Monumentu Multzoaren mugaketaren barruan egiten bada.

3.– Ez balitz egokitzat joko babestutako ondasun higigarriak Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoaren eremura lekualdatzea, edo, hori egiteko aukera dagoen unera arte, ondasun horiek Burdinbidearen Euskal Museoan kontserbatu ahal izango lirateke. Salbuespen gisa, eta ondasunak kontserbatzeko arrazoiek hala justifikatzen badute, Monumentu Multzotik kanpoko beste edozein lekutara eraman ahal izango dira, baina, horretarako, Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen organoaren baimen arrazoitua jaso beharko da, 6/2019 Legearen 54. artikuluan ezarritako baldintzetan.

IV. ERANSKINA

VASCO-NAVARRO TRENBIDEAREN ONDARE HIGIEZINEN ZERRENDAK

Ondorengo zerrendetan, Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoko ondasun higiezin babestuak ageri dira, 3. artikulua araberako duten tipologiari jarraituz, tartea, udalerrria eta planoak zehaztuta, bai eta, hala badagokio, esleitua duten babes-maila ere.

KOD.: Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzokoaren espedienteko identifikazio-kodea. XX-YY-00.

(XX: Udalerrria, YY: Tipologia, 00: Identifikazio-zenbakia).

IV.1 zerrenda: Obra zibila.

IV.1.1 zerrenda: Babes Bereziko obra zibila.

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|--------|--------|-----------------|----------|---|
| 1 | 1/02 | Vitoria-Gasteiz | VI-OC-01 | Eskalmendiko zubia, Zadorra ibaiaren gainean |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-OC-02 | Auzo-bide baten azpiko pasabidea |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-OC-03 | 202. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-OC-02 | 1. tunela Marinen |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-OC-04 | 2. tunela Marinen |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-12 | GI-3310 errepidearen eta Deba ibaiaren gaineko 1. biaduktua, Castañaresen |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-13 | GI-3310 errepidearen eta Deba ibaiaren gaineko 2. biaduktua, Castañaresen |
| 1 | 1/18 | Bergara | BE-OC-05 | Torrekuako zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/18 | Bergara | BE-OC-08 | San Lorentzoko zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 2 | 2/11 | Arraia-Maeztu | AM-OC-05 | Elortzako tunela |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-OC-11 | A-132ren eta Azazetako Ega ibaiaren gaineko biaduktua |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-OC-12 | Atauriko tunela |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-OC-01 | San Saturninoko zubia, Azazetako Ega ibaiaren gainean |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-OC-08 | Santa Kristina zubia, Azazetako Ega ibaiaren gainean |
| 2 | 2/16 | Kanpezu | CA-OC-11 | Ega ibaiaren gaineko zubia, Santikurutze Kanpezun |

IV.1.2 zerrenda: Babes Ertaineko obra zibila.

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|--------|--------|---------------------|----------|---|
| 1 | 1/05 | Arratzua-Ubarrundia | AU-OC-01 | Santa Engrazia ibaiaren gaineko zubia |
| 1 | 1/05 | Arratzua-Ubarrundia | AU-OC-02 | Auzo-bide baten gaineko pasabidea, Lukun |
| 1 | 1/07 | Arratzua-Ubarrundia | AU-OC-03 | Auzo-bide baten azpiko pasabidea, Landan |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-OC-04 | Auzo-bide baten gaineko pasabidea, Landan |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-OC-01 | GI-3310 errepidearen gaineko pasabidea |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-OC-04 | Bide baten azpiko pasabidea, San Martinen |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-OC-05 | Ubendurgo tunela |
| 1 | 1/09 | Eskoriatza | ES-OC-01 | Marotobasoko tunela |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-OC-03 | Auzo-bide baten azpiko pasabidea, Marinen |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-OC-05 | 3. tunela Marinen |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-OC-06 | 4. tunela Marinen |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-07 | 1. tunela Zarimutzen |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-08 | 2. tunela Zarimutzen |

2023ko azaroaren 9a, osteguna

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|--------------------------|----------|---|
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-09 | 1. tunela Mazmelan |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-10 | 2. tunela Mazmelan |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-OC-11 | 3. tunela Mazmelan |
| 1 | 1/12 | Eskoriatza | ES-OC-14 | San Juan kalearen azpiko pasabidea |
| 1 | 1/12 | Eskoriatza | ES-OC-15 | Olazarko tunela |
| 1 | 1/14 | Arrasate | AR-OC-01 | 1. zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/16 | Bergara | BE-OC-01 | Barrenazahar errotako zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-OC-04 | Barrenazahar errotako zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-OC-05 | Barrenazahar errotako tunela |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-OC-06 | San Prudentzioko tunela |
| 1 | 1/16 | Oñati | OÑ-OC-01 | San Prudentzioko zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 1 | 1/16 | Bergara | BE-OC-02 | San Prudentzioko zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 1 | 1/17 | Bergara | BE-OC-03 | Unión Cerrajera enpresako zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/18 | Bergara | BE-OC-04 | San Antonioko tunela |
| 1 | 1/18 | Bergara | BE-OC-06 | Ibargaraiako zubia Deba ibaiaren gainean |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | OÑ-OC-02 | Fanderiako zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | OÑ-OC-04 | Auzo-bide baten azpiko pasabidea, Zubillagan |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | OÑ-OC-05 | Zubillagako zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | OÑ-OC-06 | Madalenako zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-OC-07 | Mikeleskoako tunela |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-OC-08 | San Pedroko zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 2 | 2/02 | Vitoria-Gasteiz | VI-OC-02 | Landa-bide baten gaineko pasabidea |
| 2 | 2/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-OC-03 | San Lorentzo errearen gaineko zubia |
| 2 | 2/05 | Burgelu | EB-OC-01 | Trokonizko tunela |
| 2 | 2/05 | Burgelu | EB-OC-02 | San Juaneko bidearen gaineko pasabidea |
| 2 | 2/06 | Iruraiz-Gauna | IR-OC-01 | A-4135 errepidearen azpiko pasabidea |
| 2 | 2/07 | Alegria-Dulantzi | AD-OC-02 | Landa-bide baten gaineko pasabidea |
| 2 | 2/07 | Iruraiz-Gauna | IR-OC-02 | Uragorako zubia, Alborkoin errearen gainean |
| 2 | 2/07 | Iruraiz-Gauna | IR-OC-03 | Gaunako bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/07 | Iruraiz-Gauna | IR-OC-04 | San Bitorreko bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/07 | Iruraiz-Gauna | IR-OC-05 | Kalderiturri errearen gaineko zubia eta euste-horma |
| 2 | 2/08 | San Millán / Donemiliaga | SM-OC-01 | Bide azpiko pasabidea Adanan |
| 2 | 2/08 | Iruraiz-Gauna | IR-OC-06 | Txintxetruko bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/08 | San Millán / Donemiliaga | SM-OC-02 | Santa Isabeleko bidearen eta ibaiaren gaineko biaduktua |
| 2 | 2/09 | San Millán / Donemiliaga | SM-OC-03 | Auzo-bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/09 | San Millán / Donemiliaga | SM-OC-04 | Huecomadurako tunela |
| 2 | 2/10 | Arraia-Maeztu | AM-OC-02 | Birgarako bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/11 | Arraia-Maeztu | AM-OC-03 | Azpiko pasabidea, Santo Toribion |
| 2 | 2/11 | Arraia-Maeztu | AM-OC-04 | Zekuianoko bide baten gaineko pasabidea |
| 2 | 2/11 | Arraia-Maeztu | AM-OC-06 | A-4145 errepidearen gaineko pasabidea, Aletxan |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-OC-07 | A-3114 errepidearen gaineko pasabideko alboko arkuak |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-OC-08 | Peñasaladako zubia, Azazetako Ega ibaiaren gainean |

2023ko azaroaren 9a, osteguna

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|-----------------|----------|--|
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-OC-09 | Maeztuko burdinolen kanalaren gaineko zubia |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-OC-10 | Sabandoko bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-OC-02 | Fuenfriako tunela |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-OC-03 | Atauritik Antoñanarako bidearen gaineko 1. pasabidea |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-OC-04 | Atauritik Antoñanarako bidearen gaineko 2. pasabidea |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-OC-05 | Azazetako Ega ibaiaren gaineko zubia |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-OC-06 | Korresko bide baten azpiko pasabidea |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-OC-07 | Bujandako bide baten azpiko 1. pasabidea |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-OC-09 | Bujandako bide baten azpiko 2. pasabidea |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-OC-10 | Tarifako zubia, Ega ibaiaren gainean |
| 2 | 2/17 | Kanpezu | CA-OC-12 | Orbisoko errekaaren gaineko zubia |
| 2 | 2/17 | Kanpezu | CA-OC-13 | Orbisoko bide baten azpiko pasabidea |
| 2. adarra | 2/18 | Vitoria-Gasteiz | VI-OC-04 | Estibaliz-Villafranca bidearen azpiko pasabidea |

IV.2 zerrenda: Arkitektura.

IV.2.1 zerrenda: 1. mailako edo babes bereziko arkitektura.

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|---------------|----------|-----------------------|
| 1 | 1/12 | Eskoriatza | ES-AR-04 | Eskoriatzako geltokia |
| 1 | 1/15 | Arrasate | AR-AR-01 | Arrasateko geltokia |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-AR-02 | Oñatiko geltokia* |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-AR-04 | Maeztuko geltokia |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-AR-02 | Antoñanako geltokia |

*Oñatiko Herrigune Historikoko Monumentu Maltzoa (2012ko abuztuaren 9ko EHAA).

IV.2.2 zerrenda: 2. mailako edo babes ertaineko arkitektura.

IV.2.2.a) zerrenda: 2. mailako edo babes ertaineko arkitektura, A azpimaila.

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|--------|--------|---------------------|----------|--|
| 1 | 1/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-02 | Erretanako geltokia |
| 1 | 1/07 | Legutio | LE-AR-02 | Legutioko Villarrealgo geltokia |
| 1 | 1/07 | Legutio | LE-AR-03 | Legutioko Villarrealgo automotorren biltegia |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-AR-03 | Landako geltokia |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-AR-01 | Maringo geralekua |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-AR-02 | Zarimutzeko geralekua |
| 2 | 2/02 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-07 | Otazuko geltokia |
| 2 | 2/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-08 | Aberasturiko geltokia |
| 2 | 2/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-09 | Andolluko geltokia |
| 2 | 2/05 | Iruraiz-Gauna | IR-AR-01 | Trokonizko geltokia |
| 2 | 2/06 | Iruraiz-Gauna | IR-AR-03 | Erentxungo geltokia |
| 2 | 2/08 | Iruraiz-Gauna | IR-AR-06 | Errotaldeko transformazio-azpizentrala |
| 2 | 2/11 | Arraia-Maeztu | AM-AR-02 | Zekuianoko geltokia |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-AR-03 | Antoñanako azpizentral elektrikoa |

IV.2.2.b) zerrenda: 2. mailako edo babes ertaineko arkitektura, B azpimaila.

| Tartea | Planoa | Udalerría | Kod. | Ondasuna |
|--------|--------|--------------------------|----------|---------------------------------|
| 2 | 2/01 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-06 | Olarizuko automotorren biltegia |
| 2 | 2/09 | San Millán / Donemiliaga | SM-AR-01 | Laminoriako tuneleko etxea |
| 2 | 2/13 | Arraia-Maeztu | AM-AR-05 | Atauriko geltokia |

IV.2.3 zerrenda: 3. mailako arkitektura.

| Tartea | Planoa | Udalerría | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|---------------------|----------|--|
| 1 | 1/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-03 | Erretanako lehengo geltokia (biltegia) |
| 1 | 1/06 | Legutio | LE-AR-01 | Urbinao geralekua |
| 1 | 1/07 | Legutio | LE-AR-04 | Legutioko Villarrealgo lehengo geltokia (biltegia) |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-AR-02 | Landako lehengo geltokia (biltegia) |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-AR-03 | Mazmelako geralekua |
| 2 | 2/06 | Iruraiz-Gauna | IR-AR-02 | Erentxungo merkantziatarako nasa |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-AR-01 | Antoñanako merkantziatarako nasa |
| 2 | 2/17 | Kanpezu | CA-AR-04 | Kanpezuko automotorren biltegia |
| 2. adarra | 2/18 | Vitoria-Gasteiz | VI-AR-10 | Estibalizko geralekua |

IV.3 zerrenda: Elementu osagarriak.

| Tartea | Planoa | Udalerría | Kod. | Ondasuna |
|--------|--------|---------------------|----------|---|
| 1 | 1/02 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-01 | Zubi txiki bat errekaaren gainean |
| 1 | 1/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-02 | 187. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-03 | 184. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/03 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-01 | 183. zenbakiko zubi txikia ubidearen gainean |
| 1 | 1/03 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-02 | Duranako lehengo geltokia |
| 1 | 1/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-04 | Auzo-bide baten azpiko pasabidea, Erretanan |
| 1 | 1/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-05 | 178. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-06 | 180. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-07 | 175. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/05 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-08 | 174. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/05 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-03 | 168. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/06 | Legutio | LE-EC-01 | Pasabide goratua, Urbinan |
| 1 | 1/06 | Legutio | LE-EC-02 | Komunen eraikina, Urbinan |
| 1 | 1/06 | Legutio | LE-EC-03 | Urbinao geralekuko nasa |
| 1 | 1/07 | Legutio | LE-EC-04 | Legutioko Villarrealgo geltokiko nasa |
| 1 | 1/07 | Legutio | LE-EC-05 | 161. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/07 | Legutio | LE-EC-06 | 158. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/07 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-04 | 156. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/07 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-05 | 153. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-06 | 154. zenbakiko zubi txikia errekaaren gainean |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-07 | 152. zenbakiko lubakia |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-08 | Zubi txiki bat errekaaren gainean |

2023ko azaroaren 9a, osteguna

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|---------------------|-----------|---|
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-09 | 140. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-10 | 141. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 1 | 1/08 | Arratzua-Ubarrundia | AU-EC-11 | 142. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 1 | 1/08 | Leintz-Gatzaga | LG-EC-01 | 194. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-EC-02 | Uharraren gaineko zubi txikia, Arlabanen |
| 1 | 1/09 | Leintz-Gatzaga | LG-EC-03 | Leintz-Gatzagako geralekua eta nasa |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-01 | 209. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-02 | Zubi txiki bat erreka gainean |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-03 | 219. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Aramaio | ARA-EC-01 | 222. zenbakiko lubakia |
| 1 | 1/10 | Aramaio | ARA-EC-02 | 223. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-04 | Zubi txiki bat, Agozibar erreka gainean |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-05 | 225. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-06 | 230. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-07 | 232. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-08 | Maringo geralekuko nasa |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-09 | 235. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-10 | 236. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-11 | 238. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-12 | 239. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-13 | 241. zenbakiko lubakia |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-14 | 1. zubi txikia erreka gainean, Zarimutzen |
| 1 | 1/10 | Eskoriatza | ES-EC-15 | 243. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-16 | 2. zubi txikia erreka gainean, Zarimutzen |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-17 | 249. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-18 | 252. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-19 | 257. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-20 | Castañaresko auzo-bide baten gaineko 1. pasabideko kontrahormak |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-21 | 261. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-22 | Castañaresko auzo-bide baten gaineko 2. pasabideko kontrahormak |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-23 | Castañaresko geralekua eta nasa |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-24 | Castañaresko uharraren gaineko zubiko kontrahormak |
| 1 | 1/11 | Eskoriatza | ES-EC-25 | 259. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/13 | Aretxabaleta | ARE-EC-01 | 271. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-EC-01 | Deskarga-lekua |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-EC-02 | Estolda |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-EC-03 | 297. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/16 | Arrasate | AR-EC-04 | 298. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/17 | Bergara | BE-EC-01 | Zubi txiki bat erreka gainean, Zalgomendin |
| 1 | 1/17 | Bergara | BE-EC-02 | Zubi txiki bat Asaldita erreka gainean |
| 1 | 1/17 | Bergara | BE-EC-03 | 310. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/17 | Bergara | BE-EC-04 | 309. zenbakiko euste-horma |
| 1 | 1/19 | Bergara | BE-EC-05 | 302. zenbakiko euste-horma |
| 1. adarra | 1/16 | Oñati | OÑ-EC-01 | 289. zenbakiko euste-horma |

2023ko azaroaren 9a, osteguna

| Tartea | Planoa | Udalerrria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|--------------------------|----------|---|
| 1. adarra | 1/16 | Oñati | OÑ-EC-02 | 288. zenbakiko euste-horma |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | OÑ-EC-03 | Zubi txiki bat Zubillaga erreka gainean |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-EC-04 | 282. zenbakiko euste-horma |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-EC-05 | Kastillokoa zubi txikia, Madari erreka gainean |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-EC-06 | San Pedroko geralekua |
| 1. adarra | 1/21 | Oñati | OÑ-EC-07 | Oñatiko geltokiko biltegi-hangarra |
| 2 | 2/01 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-09 | «FFCC del Norte» delakoaren gaineko pasabidearen hondarrak |
| 2 | 2/01 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-10 | Zubi txiki bat, Errekaleor erreka gainean |
| 2 | 2/01 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-11 | Landa-bide baten azpiko pasabidea, Olarizun |
| 2 | 2/02 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-12 | 128. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-13 | 125. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/03 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-14 | Aberasturiko geltokiko nasa |
| 2 | 2/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-15 | 121. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-16 | Zubi txiki bat Morinaldea erreka gainean, Andollun |
| 2 | 2/06 | Iruraiz-Gauna | IR-EC-01 | Zubi txiki bat, Maduralde erreka gainean |
| 2 | 2/08 | Iruraiz-Gauna | IR-EC-02 | Uribarri-Jauregiko geltokiko nasa |
| 2 | 2/08 | San Millán / Donemiliaga | SM-EC-01 | 91. zenbakiko euste-horma |
| 2 | 2/09 | San Millán / Donemiliaga | SM-EC-02 | 90. zenbakiko euste-horma |
| 2 | 2/09 | San Millán / Donemiliaga | SM-EC-03 | Trenbidearen azpiko pasabide txiki bat, Gereñuko mendatean |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | AM-EC-01 | Zubi txiki bat Azazetako Ega erreka gainean, Maeztun |
| 2 | 2/13 | Arraia-Maeztu | AM-EC-02 | Zubi txiki bat, Antoñanako zentral hidroelektrikoaren kanalaren gainean |
| 2 | 2/13 | Arraia-Maeztu | AM-EC-03 | Atauriko geltokiko nasa |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-EC-01 | 41. zenbakiko lubakia |
| 2 | 2/14 | Kanpezu | CA-EC-02 | 45. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-EC-03 | 56. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/15 | Kanpezu | CA-EC-04 | 63. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/16 | Kanpezu | CA-EC-05 | 69. zenbakiko zubi txikia erreka gainean |
| 2 | 2/16 | Kanpezu | CA-EC-06 | 71. zenbakiko zubi txikia, Rosalia erreka gainean |
| 2. adarra | 2/04 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-17 | 116. zenbakiko euste-horma |
| 2. adarra | 2/18 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-18 | 114. zenbakiko horma |
| 2. adarra | 2/18 | Vitoria-Gasteiz | VI-EC-19 | Estibalizko geralekuko nasa |

V. ERANSKINA

VASCO-NAVARRO TRENBIDEAREN ONDARE HIGIGARRIEN ZERRENDA

Ondorengo zerrendan, Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoan babestutako ondasun higigarriak daude jasota, gaur egun non dauden eta titularra nor den zehaztuta.

V.1 zerrenda: Ondasun higigarriak.

| Ondasuna | Kokapena | Titularra |
|----------------------------------|---------------------------------|------------------|
| 11. zenbakiko lurrun-lokomotorea | Oñatiko geltokia | Eusko Trenbideak |
| 3002 automotor elektrikoa | Azpeitiko Burdinbidearen Museoa | Eusko Trenbideak |
| Bidaiari-kotxea | Azpeitiko Burdinbidearen Museoa | Eusko Trenbideak |
| Z02 areto-kotxea | Azpeitiko Burdinbidearen Museoa | - |
| C bidaiari-kotxea | Azpeitiko Burdinbidearen Museoa | - |

VI. ERANSKINA

VASCO-NAVARRO TRENBIDETIK DESAGERTUTAKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

Ondorengo zerrendan, Vasco-Navarro trenbidearen jatorrizko sistema osatzen zuten eta gaur egun desagertuta dauden ondasun higiezinak daude jasota, zein tartetan eta udalerritan zeuden zehaztuta.

KOD.: Vasco-Navarro trenbidearen Monumentu Multzoaren espedienteko identifikazio-kodea. (D)-XX-YY-00.

(D: Desagertua; XX: Udalerria, YY: Tipologia, 00: Identifikazio-zenbakia).

VI.1 zerrenda: Desagertutako obra zibila.

| Tartea | Planoa | Udalerria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|--------------------------|------------|--|
| 1 | 1/16 | Arrasate | D-AR-OC-02 | 2. zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/16 | Arrasate | D-AR-OC-03 | 3. zubia, Deba ibaiaren gainean |
| 1 | 1/18 | Bergara | D-BE-OC-07 | Katabiako tunela |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | D-OÑ-OC-03 | Trenbidearen zubia, Oñati ibaiaren gainean |
| 2 | 2/05 | Alegría-Dulantzi | D-AD-OC-01 | Egiletako bidearen azpiko pasabidea* |
| 2 | 2/09 | San Millán / Donemiliaga | D-SM-OC-05 | Laminoriako tunela** |
| 2 | 2/10 | Arraia-Maeztu | D-AM-OC-01 | Laminoriako tunela** |

* Desagertua eta berreraikia.

** Oraindik ere kontserbatzen da, baina oso egoera txarrean.

VI.2 zerrenda: Desagertutako arkitektura.

| Tartea | Planoa | Udalerria | Kod. | Ondasuna |
|-----------|--------|---------------------|-------------|--|
| 1 | 1/01 | Vitoria-Gasteiz | D-VI-AR-01 | Gasteiz Hiria geltokia. |
| 1 | 1/03 | Arratzua-Ubarrundia | D-AU-AR-01 | Duranako geltokia |
| 1 | 1/08 | Leintz-Gatzaga | D-LG-AR-01 | Leintz-Gatzagako geltokia |
| 1 | 1/13 | Aretxabaleta | D-ARE-AR-01 | Aretxabaletako geltokia |
| 1 | 1/16 | Bergara | D-BE-AR-01 | San Prudentzioko geltokia |
| 1 | 1/18 | Bergara | D-BE-AR-02 | Bergarako geltokia |
| 1 | 1/19 | Bergara | D-BE-AR-03 | Mekolaldeko geltokia |
| 1. adarra | 1/20 | Oñati | D-OÑ-AR-01 | Zubillagako geltokia |
| 2 | 2/01 | Vitoria-Gasteiz | D-VI-AR-04 | Gasteizko Iparraldeko geltokia |
| 2 | 2/01 | Vitoria-Gasteiz | D-VI-AR-05 | Olarizuko geltokia |
| 2 | 2/07 | Iruraiz-Gauna | D-IR-AR-04 | Gaunako geltokia |
| 2 | 2/08 | Iruraiz-Gauna | D-IR-AR-05 | Uribarri-Jauregiko geltokia |
| 2 | 2/10 | Arraia-Maeztu | D-AM-AR-01 | Laminoriako geltokia |
| 2 | 2/12 | Arraia-Maeztu | D-AM-AR-03 | Maeztuko merkantziarako nasa |
| 2 | 2/17 | Kanpezu | D-CA-AR-05 | Santikurutze Kanpezuko geltokia |
| 2 | 2/17 | Kanpezu | D-CA-AR-06 | Santikurutze Kanpezuko merkantziarako nasa |
| 2 | 2/17 | Kanpezu | D-CA-AR-07 | Horraditxoko langileen etxea |

VI.3 zerrenda: Desagertutako elementu osagarriak.

| Tartea | Planoa | Udalerria | Kod. | Ondasuna |
|--------|--------|-----------|------------|-------------------|
| 1 | 1/19 | Bergara | D-BE-EC-06 | Trenbideko etxola |